2001
2022

KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2022ko abendua - 233 zkia.

Gabon Zoriontsuak
ETA URTE BERRI ON!



Nagusilan

Adinekoak adinekoak zaintzen

KATETXE: HISTORIA BATEN AZKEN HATSAK • INDARKERIAREN SOKA LUZEA
ALBERTO GORRITIBEREAK AGUR • BOLATOKIXAK EDONUN (II)
GABONAK ETA OPARIAK • GABONETAN ERE EUSKAL PRESOAK GOGOAN



DOMINGO IBAIBARRIAGA, 3 BEHEA - 20830 MUTRIKU - 943 60 42 29 / 608 684 416 - APAIN@APAIN.NET

Torrealday



Torrealday adituak, Gipuzkoan ere bai

Torrealdayk 35 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta hainbat herritan banatuta dagoen bulego-sare zabala. Enpresa handiei, enpresa txiki eta ertainei, eta autonomoei zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu integrala eskaintzen diegu, kualifikazio handiko eta etengabeko prestakuntzan dagoen profesional-talde baten eskutik. **Ondarroa, Ermua eta Irungo** gure bulegoetatik kalitate handiko zerbitzua eskaintzen dugu, hurbiltasuna eta konfiantza osoa eskainiz. Gainera, bezeroei beren jarduerari eragiten dieten berrikuntza guztien berri ematen diegu, baita gure azpiegiturari eta gaitasunari esker jaso ditzaketen laguntzen eta diru-laguntzei buruzko informazioa ere. Jar zaitez gurekin harremanetan, eta inolako konpromisorik gabe informatuko zaitugu.

TicketBAI GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Torrealday aditua

www.torrealday.es

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Pello Ulazia Ibarzabal

GABONETAKO KEREIXAK

2012an Iñaki Petxarromanek *Lurra, zorua bailitzan* argitaratu zuen, munduaren arazo ekologiko larriaz ohartaraziz. Euskal Herriko lurrari erreferentzia eginez, azaltzen du egunero, aurrerapenaren izenean, eremu naturaleko 1,23 hektarea lur estaltzen direla zementuz; horrela, lurra (barnean daraman bizitzarekin), zorua (geruza soil bat) balitz bezala erabiltzen da.

2022an, Portu Berria proiektu zaharkituaren ildotik, berriro datoz itsasoa gehiago merkantilizatzera. Oraingoan dikea luzatzera, handitzera, dike barruko itsas-eremua "baretzera". Natura, espazio publikoa, paisaia edo Geoparkea bezalako balioak errefusatu eta itsasoa geruza soil bat bilakatzea dute helburu. Alegia, itsasoa (bizidun elementua) lamina bezala ulertu eta geruza soil bat bilakatzea, *itsasoa ur-lamina bailitzan*.


Eta etsigarriena da dikea luzatu nahi dutenak duela hogei urte gure itsas eremu guztia zementuz estaltzea proposatzen zutenak direla. Eta ez diegu inongo autokritikarik entzun, are gehiago, beraien hitzetan "lehenengo, dikea luzatu, eta gero erabakiko dugu herritarrok bertan zer egin". Nork sinesten du portuko erabakiak eta eskumenak herritarron eskuetan utziko dituztela?

Amari entzunda neukan, helduek, haurrei fabore edo errekadu eskatzean, hauei "gabonetan kereixak" agintzen zizkietela. Guri ere "gabonetan kereixak" agintzen dizkigute, baina guk ume izateari aspaldi utzi genion.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta
aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga
www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea
Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal

Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala



www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

*Ianegun ostiraletan

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	*23:20	*01:10
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	23:30	01:20
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:55	01:40
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

*Ianegun ostiraletan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	*22:05
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	20:55	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

ig. ig./ jai
lr. lar.

Donostia	10:30	14:30	17:00	ig.20:30	lr.21:00	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	lr.7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	lr.22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

GAUEAN Mutrikutik: ostiraletan 23:25 eta 1:15; larunbatetan 23:25, 23:55, 1:55, 3:55, 5:55.

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	lr.6:50	7:45	orduro	19:45	lr.20:45	lr.21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	lr.21:55	lr.22:55	23:00

GAUEAN Mutrikura heldu: ostiraletan 0:25; larunbatetan 1:10, 3:10, 5:10, 6:10. Eibartik -25 min.

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	lr.8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	lr.9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	lr.22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	lr.9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	lr.8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

DENBORALDEA

36 urte, 11.196 zutabe, 3.358.800 hitz eta 22.400 argazkiren ondoren agur esateko ordua heldu zaizu.

Urte guzti hauetan, Mutrikuk, makina bat gorabehera eduki ditu eta zuretzako ere, ez da bide erraza izan gertakari horien inguruko albisteak orekatzea.

Zuk esaten diguzun bezala, abizenetik datorkizu "gorri" esanahia eta sarri, mutrikuarrak ere, belarriak gorri jarri dizkizute.

Hala ere, beti saiatu izan zara herriari hitza ematen eta zure ideietatik haratago neutraltasuna mantentzen. Etxe barruko txoko desberdinetatik begiratu zaitugunok, etengabe ikusi dugu Mutriku hobe eta justua eraikitzeko griña. Are gehiago, guretzako ere ez da xamurra izan ibilbide hau, baina pozik gaude egin duzun bidearekin.

Honetaz gain, denboralde luze honetan, "isiltasunean" zure alboan egon den amari, gure eskerrik beroena luzatu nahi diogu.

Bukatzeko, gozatu etorkizunean datorkizun aro berriaz eta harmailatik bada ere, segi Mutriku hobetzeko ideiak plazaratzen.

Urritz eta Maider Gorritiberea Astigarraga

GUTUNA

Alkatea den Joseba Palenzuelak herriko udal igeltseroa den Xabier Astigarragari (oposaketak igeltsero 1ra 2000. urtian) injustizia egiten ari zaio. Egiak manipulatzen, iruzurrak egiten, diskriminatzen, besteengandik baztertzen, gezurrarekin gozatzen eta langile baten osasunarekin jolasten.

Brigadako nire lankideei lanpostuak igo eta soldatan plus bat gehitu zaizkie. Neri ez. Zerrena da plusa?

Ez do eskubideik alkate batek, lankide eta langileon ordezkaria izandakoak brigadako langile bati halako eraso diskriminatzailea egiteko.

Ez al det nire lankideek beste lan meritorik egiten? Erabili izan det retroeskabadora Mijoako erreka garbitzeko eta abar. Baita ere palaeskabadora bideetan lurjauziak kentzeko. Ibili izan naiz kanposantuan panteoiak garbitzen enterradoriai laguntzen. Ibili izan det grua haundixa kaixolakin nire lankideak farola buru batzuk konpontzeko. Nork baloratzen du gure lan merituak eta plusak? Nere lankideen ondoan, alperra al naiz ba?

Saiatzen naiz ba lana zintzo egiten. Igeltseritza gustoko det eta ahal dana egiten det.

Alkateak arauak egin, manipulatu eta puzkatu egiten ditu komeni zaionean. Ez nuen pentsatzen txantxullo hoiekin lanean zintzo ibilita ere alkate batek langile bati horrela izorratzera joan zeikenik.

Umiltasunez, egia eta justizia ari naiz aldarrikatzen.

Xabi Astigarraga, Brigadako Igeltseroa

MIJOAKO SANEAMENDUA 2022an ERE EZ

Abenduan gaude, 2022. urtea bukatzear da eta Mijoa errekako saneamendu-lanen arrastorik ez dago. Mutrikuko erreka honek kutsadura Saturrarango hondartzara isurtzen du.

2021eko otsailean, Ura Agentziak saneamendu-proiektu honen idazketa lizitatu zuenean, aurrerapausotzat jo genuen, proiekturik gabe ez dagoelako lanak gauzatzerik, baina garbi utzi genuen ez genuela txalo egingo, lan hauek hamarkada luzeko atzerapena dutelako. Izan ere, Mijoako saneamendua, beranduenez, 2011rako bukatuta eta zerbitzuan egon behar zen, herri-erakundeek Gipuzkoan 2007. eta 2011. urte bitartean hainbat lan hidrauliko egiteko izenpetu zuten Esparru Akordioaren arabera.

"*Proiektua gauzatuta ikusi arte beste hamar urtez itxoin behar ez izatea baino ez dugu desio*", ohartarazi genuen orduan. "*Ez, ez, oraingoan bai*", esan ziguten, eta prentsan hau bezalako titularak irakurri ahal izan genituen: "*El presente año será para configurar los proyectos y 2022 para actuar sobre ellos en Mijoa*" (2021ean proiektuak idatzi eta 2022an gauzatuko ditugu Mijoan).

Bada, 2023. urtea ate joka dugu, baina Mijoak jarraitzen du estolda hutsa izaten.

EGUZKI

INKLUSIOA, BAI?

Inklusioa. Horixe da aspaldian erabiltzea gustatzen zaigun hitza. Hori bai, inklusioak erabilera azalekoa eskatzen duen kasuetan bakarrik. Ez gaitezen sartu azaletik barrurago, badaezpada.

Denok gara inklusiboak, harik eta hitzaren adiera era aktiboan erabiltzen hasi arte. Normalean, jendartean gutxiengoa izango gara hori egiten dugunak, eta normalean, gainerakoei ez zaie hain ederra gertatuko. Kasu horretan inklusioaren alde lan egingo duena hiritar gatazkatsu bihurtuko da, diskriminazioak ikusiko baititu, gehiengoarentzat ez dauden lekuan.

Nire ustez, hori da gizarte multietnikoetan elkarrekiko errespetuzko eta duintasunezko bizikidetzaren bila emaitza oso gutxi lortzearen benetako arrazoia.

Nelson Mandelak esan zuen bezala: Ni gabe egina dagoen guztia, nire aurka egina dago.

Arraza eta etnia inklusioa eskuzabaltasun eta ausardiazko ekintza izatea beharrezkoa da. Eta beharrezkoa da, eguneroko bizitzan espazio berean bizi diren etnia eta arrazen aniztasunarekiko errespetuzko pedagogia sortuko duelako. Horretarako, lehen urratsa norberaren historia eta aurrez aurre dugun gutxiengoarena ezagutzea eta onartzea da.

Inklusioari buruz dugun ideia guztiz irreala da; epe luzeko estrategian zentratu ordez, eguneroko gatazkak estaltzera bideratua dagoelako. Benetako inklusioak gure errealitateari aurre egin behar dio, eta gure erosotasun-eremutik atera behar gaitu; deseraikuntza kolektibo, intelektual, historiko, kultural eta linguistiko mingarri baterantz eraman behar gaitu.

Jendartearen gehiengoak badu zeregina, eta erantzukizuna du gizarte inklusibo bat lortzeko bidean. Epaitua izateko beldurrik gabe gutxiengoari protagonismoa emanez, bere proposamenen buru izatea ahalbidetuz eta bere iritzia azaltzeko askatasuna eskainiz.

Mundu aldakor batean gaudela konturatzea denon ardura denez, aurre hartu behar diegu inposatuko dizkiguten aldaketei. Inoiz ez da egon gizarte etniko bakarra, ezta kultura bakarrekorik ere.

Interkonektatuta gauden garai honetan ere, ez da horrela izango. Gure motxila historikoetatik harririk deskargatu gabe aurrera egin nahi izatea historiak eskaintzen digun aukera galtzea da. Berdintasunean, duintasunean eta desberdinen arteko errespetuan oinarritutako mundu uniforme baten eraikuntzan parte hartzeko aukera galtzea, alegia.

Omar Thior

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

KATETXE historia baten azken hatsak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mutriku eta Ondarroa artean Bizkaiarekin muga egiten den lekuan dagoen "Katetxe" eraikina eraistea erabaki du, Mutrikuko Udalak hondatuta dagoela esanez agertu duen txosten baten ondorio.

Ia mutrikuar guztiontzat, betidanik ezagutu dugun Mikeleteen eraikina da, baina bere historiaren berri jakin nahian mintzakide izan ditugu inguruan bizi izandako Jose Luis Osa Plaza (1946) eta Maria Cruz Urreisti Egia (1949), baita Katetxen bertan jaiotako Jose Antonio Aranguren Preboste (1943), eta, mende honen hasieran, etxe bizitzen falta erreibindikatuz bertara bizitzera jo zuten ondarroar gazte haietako partaide bat.

Mikeleteak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko polizia indar bat izan zen, eta bere funtzioak aldatzen joan ziren urteak pasatu ahala.

1938an sortu zuen Aldundiak Segurtasun Publikoa eta Babesaren jagole edo zaindari izango zen talde bat, lehen gerra karlistan soldadu ibilitako jende batekin. Baina 1841ean desegin zen talde jagole hori, eta 1844an sortu gorputz berri bat: mikeleteena.

Segurtasun publikoa zaintzeaz gain, kontrabandoa jazartzeko eskumena eman zitzaien. Mendi pasabideak zaintzen zituzten, eta poliki-poliki eskumen horiek zabaltzen joan. Hala 1856an zeregin berri bat jarri zitzaien: probintziara kanpotik zetozen gaien zergak biltzea. Horretarako eraikinak altxa ziren probintziaren mugetan, Saturrarango Katetxe izanik Bizkaiarekin mugetako lekuetako bat, Urkaregi, Elgeta, Kanpazar eta Olarragarekin batera.

Bigarren gerra karlistan, 1874an, Gipuzkoako mikelete eta boluntarioen batailoia antolatu zen 720 kidek osatua. Gerran, horietako %20k aurkitu zuten heriotza.

1896an Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren 32 sukurtsalen ardura ere hartu zuten. Beraz, polizia zaintza eta mota ezberdinetako lan administratiboen ardura zuen mikeleteen gorputzak.

1937ko ekainaren 23an, kolpistek estatuak Gipuzkoako Aldundiarekin zuen itun ekonomikoa baliogabetu zuten, eta urte bereko abuztuaren 25ean, Gipuzkoako mikeleteak eta Bizkaiko miñoiak deuseztatu zituen iparraldeko armadaren buruzagi zen Gil Yustek. Baina, hala ere, mugetako zergak biltzen jarraitu zuten ordura arteko zenbait mikeletek. Hori bai, janzkera aldatuta: jantzi kakia eta txapel gorria.

Mikeleteen gorputzaren janzkera honelakoa izan zen: txapel gorria; kapa urdin iluna, barnetik gorria; belaunetarainoko "pontxo" urdin iluna; gerriko beltza eta galtza gorriak. Arma modura, fusil eta matxete bat. Ofizialek sablea.

1967an bukatutzat eman ziren zergabilketa lanak. Hala ere, Aldundiak, Franco hil ostean, berriro eskuratu zituen mikelete izenarekin bere esku zeuden foru eraikinen zaintzaileak; Martin Garitano ahaldun nagusiak 2012an deuseztatu zituen arte. Egun, lau mikelete soilik daude foru eraikinen zaintzarako eta ahaldun nagusiaren zein diputatuen bizkarzain lanak egiteko, baina Ertzaintzari atxikita.

1936ko gerra sortu baino lehen, Errepublika denboran, Felix Churruca Dotres zen Gipuzkoako mikeleteen buru. Une hartan, Eusko Jaurlaritzaren partaide izanik, Telesforo Monzonek negoziatu zuen mikeleteak Eusko Jaurlaritzaren indar militarra izatera pasa zitezen, baina Felixen ezezkoa jaso zuen. Estatu kolpea ematean, Felixek haien alde egin zuen, baina mikelete asko, errepublikarrak izaki, Bizkaia aldera egin zuten Francoren aurka borrokatzeko.

Katetxe

Jose Antoniok dio, Katetxen jaioa dela bera. "*Aita mikeletea zen eta Aurrezki Kutxan egiten zuen lan. Ezkontzeko asmotan zirela, Katetxeko ariel-etxe edo aduanan lanpostu bat sortu zen, eta bertarako eskaera egin zuen*" —soldata antzekoa eta etxea doan izatearen abantailarekin—. Eraisteko dagoen eraikina 1930ean inauguratua izan zela, aduana zaharraren leku berean. Hiru solairuko etxea, beheko planta, gehi soto bat. "*Hiru familia bizi ginen goiko solairuetan; beheko plantan itsas aldera zegoen bulegoa, eta beste aldera soltero batentzako etxebizitza. Sotoa bilgune bezala erabiltzen zen, baina badirudi kalabozo izateko prestatua zela*".

Etxe honek berezitasun bat duela esaten jarraitzen du Jose Antoniok. "*Eraikuntza dagoen lurrak bi erakoak dira, granitozko aglomeratua* —harri sendoa—, *eta arbela bestea*. Hori dela-eta, itsasoaren eragina tarteko, lurra mugitu, eta etxea inklinatzen omen doa. "*Umetan goiko terrazatik sokarekin lotutako harri bat botatzen nuen lurrera, plomada bezala, baina paretari heltzen zitzaion gaurko "Venecia" aldean; alderantziz, itsas aldera jaurtita paretatik aldendu egiten zen. Froga bera egin nuen gurasoek alde egin zutenean, eta lehen metro eta erdi aldentzen bazen itsasaldera, oraingoan hiru bat metro ziren*". Baina, dio, Katetxe eraiki zuen arkitektoa, jubilatzear zegoena, horma nagusiekin lan egiten ohituta zegoela, eta ez zuela konfiantza handirik hormigoi armatuekin; beraz, sistema biak erabili zituen, hormigoiarekin egitera behartu zutenean. Eta horrek, sendotasun bat eman ziola eraikuntzari. Saturrarango gasolindegitik begiratuta nabarmentzen dela inklinazioa.

Probintzian ez zeuden gaiei jartzen zizkieten zergak, baita gai horien kalitatea frogatu ere. Ardoaren adibide bat jartzen du: Nafarroako Zintruenigotik erosten omen zuen Bizkaiako enpresa batek ardoa, eta barriketan edo zahagietan garraiatu;

graduazio altukoa omen, eta analizatu egiten zuten 20 gradutik gorakoek likore zerga ordaindu behar zutelako.

Bizkaitik Gipuzkoara bezala, alderantziko norabideko gaiek ere kontrola zuten, eta Bizkaiko miñoien —jantzi grisak— aduana "San Juan txurru" parean omen zegoen: lehenengo etxebizitza Ondarroara bidean eskuinetik —egun etxeak daude eraikita—. Bidean zehar zirkulazioa gehitzen joan zen heinean, arazo gehiago zuen lekuak kamioiak-eta geldiarazteko, eta alde bietako aduanak Katetxera batu ziren, bateko zein besteko funtzionarioak lan berdina eginez erreleboetan.

Zergak kobratzeari 1960. urte inguruan utzi zitzaion Katetxen, baina bertako langileei bertan bizitzen jarraitzeko aholkatu zieten Aldunditik, etxeak hobeto zainduta egongo zirelako, eta, hala, 1975. urtera arte jarraitu zuten gurasoek bertan bizitzen.

Eskola eta telefonoa

"*Sasoi hartan* —dio Jose Antoniok— *euskara etxean bakarrik egiten genuen lasai, kalean egitea debekatuta zegoen, eta beti agertzen zen umeei euskaraz aditzean mehatxatuko zuenen bat. Zer esanik ez eskolan, eta baita dotrinan ere apaizekin. Begira noraino iristen ginen gaztelaniaz tutik ere ulertzen ez genuen umeok*":

— apaizak: *¿Primer mandamiento de la ley de Dios?*
— umeak: *Atar a Dios (amar-en ordez)*
— apaizak: *¿Cómo?*
— umeak: *Sí..., amarrar a Dios.*

Ondarroan jarraitu zuen eskolan Jose Antoniok, baina dotrina ikastera seminariora jaisten zen. Beranduago, seminarioan jarraitu zituen ikasketak apaizgai bidean.

Jose Luis eta Mari Cruzek, Katetxen bertan ezagutu zuten eskola, Jose Luisek urte bat pasatxo egin omen zuen, gero Lekeitiora joan zelako, baina Mari Cruz bederatzi urterekin hasi zen bertan eta hamalau urtera arte jarraitu; urteren bat edo beste gehiago ere iraun omen zuen eskolak. Biek diote 30 haur izatera ere iritsiko zirela eskolan. San Jeronimo aldetik Saturraran arterako baserrietatik joaten omen ziren, baita Saturrarango karabineroen kuarteleko umeak ere. Kokapena, Jose Antoniok aipatu duen soltero batentzat egokitutako behe solairuko etxebizitza, eskola izateko egokituta. Aipatzen dute pare bat maistra izan zirela; haietako bat Tere omen zen, Jacakoa.

Telefono deiak egitera ere bertara joaten zirela diote Jose Luisek eta Mari Cruzek, eta hori baieztatzen du Jose Antoniok: Aldundiak zuela Gipuzkoako telefono sarea, Donostiak berea aparte izanik. Bulegoan telefono bat zutela, eta aparte, kabina bat jarrita. Orduko dinamoak korrientea sortzeko eta larako edo klabijak konexioak egiteko ziren Mutrikuko zentralarekin loturak egiteko. Komunikazio eskakizuna egiten zuten eta ordu bat ezarri. Jose Antoniok dio inguruko baserri guztiak ezagutu zituela aitak ematen zizkion konferentzia ordua jarritako oharrak eramatean, kanpotik deia egiten zutenean.

Okupak

2001 urte inguruan gazte talde bat urteetan hutsik zegoen Katetxe eraikinean sartu zen bizitzera, gazteentzat etxebizitza falta zegoelarik, erreibindikapena eginez. Etxea egokitzen hasi ziren, denborak nahiko hondatu zuelako, eta Mutrikuko Udalaren laguntza lortu zuten ura eta argindarra izateko. Ondarroako Udaleko Gazte Batzordearekin harremana zeukatenez, lortu zuten dirulaguntzak izatea ere, antolatzen zituzten ikastaroak aurrera eramateko. Ikastaro praktikoak ziren gehienbat, lanerako prestakuntzan: sukaldaritza begetarianoa, iturgintza, elektrizitatea, grabaketa... Horrela, etxearen mantenua ere era egokiagoan egiten zuten.

Autogestio asanblearioa zen ardatz euren harremanetarako, baina bost bat urte igaro ondoren, elkarbizitza okertzen joan zen, etorri zen jende berriak asanblearen erabakiak jarraitzeari utzi zionean. Hasierako taldea, poliki-poliki etxea uzten joan zen. Duela gutxi irtenarazi dituzten arte, jendea egon da bizitzen, baina ez helburu erreibindikatzaile harekin.



XX. mendeko mikeletea



XIX. mendeko mikeletea



Katetxe, mikeleteen etxea, gaur egun

GABONETAN ERE HERRIAN KONTSUMITU

BERTAN Mutrikuko merkatarien Elkarteak eta Mutrikuko Udalak elkarren arteko lanean Gabon jaien inguruan ugaritu egiten diren erosketak herrian bertan egiteko kanpainak ipini dituzte martxan.

Batetik, urtero egiten den moduan, BERTAN elkarteak gabonetako erosketak herrian egitea saritu nahi izan du bere bezeroen artean. Ondorioz, abenduaren 2tik 15era arte BERTAN elkarteko establezimenduren batean erosketak egiteagatik zozketan parte hartzeko paperak jaso dituzte bezeroek. Zozketan 1.000 euro banatu ditu elkarteak bonotan (500, 200 eta 100 euroko bono bana eta 50 euroko 4 bono) elkarteko 35 establezimenduetako batean trukatzeko.

Zozketa abenduaren 15an izan da eta BERTAN elkartearen webgunean (https://mutrikubertan.eus/), erakuslehioetan eta sare sozialetan zabaldu da irabazleen zerrenda.

Bestetik, Mutrikuko Udalak herriko merkataritza txikia bultzatzeko 2 Orbea bizikleta elektriko zozketatuko ditu gabonetako "*Entxufatu Herriko Komertziora*" kanpainan, 2023ko urtarrilaren 6an amaituko dena. Kanpainan atxikitu diren herriko 52 komertzioetan egindako erosketek bi bizikleta elektrikoren zozketan parte hartzeko aukera emango diete herritarrei. 10 euroko erosketa bakoitzagatik boleto zenbakitu bat jasoko du bezeroak. Zozketa urtarrilaren 17an egingo da Zabiel Kultur Etxeko Ganbaran, ekitaldi publiko batean, eta *Mutrikuko Udala* Youtube kanalean jarraitu ahal izango da zuzenean.

Mutrikun erosteak saria dauka, beraz zorte on!





TRIBIALEKO GALDERAK

Aurreko Kalaputxin agertu genuenez, Udalak herriko Tribiala osatzeko lanean dihardu, Institutuan abiatutako proiektu bati jarraipena emanez, mutrikuar guztion artean gure herriko kontuak etorkizuneko mutrikuarrei transmititzeko. Herriko gaiei, tokiei, pertsonei eta kontuei buruzko galderak planteatzeko eskatzen da, familia artean, lagun artean edo, akaso, bakarka, gure herriaren ingurukoak ikasi edo gogora ditzagun.

Parte hartu nahi duenak, bidali proposamenak helbide hauetako batera:

euskara@mutriku.eus edo aldizkaria@kalaputxi.eus

Galderak honelakoak izan daitezke:

Zein auzotan dago Zapatei kale?

a - Samikollan
b - Entzuzen
c - Moillan
d - Beheko plazan

Non egin zuten afaria aeroplanua ekarri ondoren?

a - Anbroxinian
b - Zumalabenian
c - Mendixanian
d - Juana Pipaxenian



optika
ALAZNE OPTIKA
Jose Mª Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

MUTRIKUKO TANATORIOA
Iriagirre z/g
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

TRENA ORDU ERDIRO ESKATUZ

Egunero trenez dabiltzan herritar taldetxo batek zerbitzu hori hobetzeko saiakera egin nahi izan du, eta. horretarako sinadura bilketa antolatu dute. Arrazoi nagusia, trenak batetik bestera joateko duen maiztasunaren aldea.

Gaur egun, Zumaia eta Eibar artean trena ordubetean behin baino ez dago, bi noranzkoetan. Eibartik Bilbo arteko zerbitzua ordu erdiro dago (Elgoibartik hasita, egunaren zati handi batean); Zumaiatik Donostia artekoa ere, berdin, ordu erdiro.

Donostia-Bilbo ibilbide osoan, Mendaro, Deba eta Arroako geltokiak bakarrik geratzen dira 30 minutuko zerbitzurik gabe.

Trenez dabilen jende kopurua handia da, are gehiago orain, txartelaren prezioa jaitsi denetik eta erregaien prezioa hainbeste garestitu denetik.

Gainera, trenen maiztasuna ordu erdirokoa izanda askoz ere pertsona gehiagok erabiliko luke garraio hori, sinadura eskatzaileen arabera. Izan ere, lan eta eskola ordutegiak askotan ez datoz bat trenaren ordutegiarekin, eta ordu bete zain egon beharrak kotxea hartzera bultzatzen du jendea.

Trenaz gain, autobusak daude Debatik Eibar aldera (Mallabia--Ondarroa linea), baita Zumaia aldera ere (Ondarroa-Zumaia linea). Lehenengo kasuan, autobusak orduro daude, baina ia trenaren ordutegi berdina dute. Bigarrenean, aldiz, zerbitzua bi eta hiru ordutik behin baino ez dago, eta trenaren ordutegiarekin bat dator.

Hori dela eta, EUSKOTRENi eskatu nahi diote astean zehar Zumaia-Eibar ibilbidean maiztasuna handitzeko, ordu erdian behingoa izan dadin, gutxienez puntako orduetan: goizez (7:00-9:00), eguerdian (13:00-16:00) eta iluntzean (19:00-21:00). Helburu hori lortzeko ideiarekin, sinadura bilketa egiteko asmoa dute, ondoren inguruko udal ordezkariei helarazi eta haien babesarekin EUSKOTRENi eskaera luzatu ahal izateko.

Guztion artean hobetu dezagun garraio publikoa!



ATXITXIN KALEA IRISGARRI

Urte batzuetatik hona irisgarritasuna edo akzesibilitatea indarra hartzen ari den gaia da. Pertsonen eguneroko bizimoduari erreparatuta, hainbat eta hainbat dira burutzen diren ekintzak eta obrak. Seguruenez, oraindik asko dago egiteko, baina garrantzitsua da kontzientzia aldaketa ematen ari izatea. Horren adibide, udalak egiten dituen espaloi koxkak kentzea, barandak ipintzea, lur irristakorretan tratamenduak...

Atxitxin kalean harlauzak ipintzen abenduan egiten ari den obra ere ildo horretatik doa: herritarrei kale horretatik ibiltzea erraztea. Atxitxin kalea amaitutakoan, datorren urte hasieran Konde kaletik Goiko plazaraino heltzea dago aurreikusita.

Erdikokalen egin zenean ikusi zenez, benetan eskertuko dute ibiltzean zailtasunak dituztenek eta gurpildun aulkidunek Goiko plazatik Samikollaraino koxkarik gabeko bide lautik joan ahal izatea.



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Indarkeriaren soka luzea

Azaroaren 25a, goizeko 8:00ak. Gelaz gela abiatu diren 1. batxilerreko ikasleek samina adierazi nahi izan dute egunaren zergatia buru-bihotzetan.

Egin dituzten esku-hartze horietan ahaztu egin dituzte orain arteko kortesiazko moduak; "kaixo, egun on, gaur azaroaren 25a dela eta…" tankerako sarreren ordez, gelan agurtu gabe sartu, esan beharrekoak esan, *Beldur Barik* lehiaketara aurkeztu dituzten lanak erakutsi eta agurtu gabe alde egin dute. Sorpresa eragin dute batzuengan eta indeferentzia eta ezinegona beste batzuengan; ohiko erreakzioak izaera performatiboa duen ekintzan.

Geletatik bueltan nola sentitu diren eta zergatik aztertu dugu guztion artean. Gaiaren inguruko interes falta eta beldurra, botere harremanak… izan dira agertu diren gakoetako batzuk. Pentsatu dugu analisi sakonak eta ezagutzak eramango gaituela egoera berriak onartzera eta horretarako arte adierazpideak lagun ditugula.

Jolasorduan patioa irakasle eta ikasle talde batek osorik hartzea helburu izan duen ekintza ere prestatu dugu, ikusi ez-ezik entzun gaitzaten.

Lokatza podcastaren 1. atalean Ahotsa lokatzetan izenekoan esaten da ahotsa dela bezatzen, domatzen, diguten lehenengo gauza. Izan ere, ohartu garenerako lotsagorritzeko bezain melenga entzuten dugu gure ahotsa eta entzungor egin nahi diogu. Itziar Ocarizek nola, hala hasi gara irrintziarekin jolasean, lotsakor hasieran.

Lehen batxilerreko ikasle batzuen inplikazioarekin joan zen mamitzen irrintzia ardatz zuen azaroaren 25erako ekintza. Irrintzia praktikatu eta egitera animatzen duen Nekane Akarregi ekarri genuen eskolara. Aberasgarria izan da ikustea nola onartzen dugun gure ezintasuna, nola egiten diegun aurre gure beldur eta lotsei eta baita ere zenbateko indarra ematen digun elkarrekin ikasteak. Ahalduntzea erraza izan da askorentzat sentimenduen lanketatik eta elkarrekin egitetik.

AZAROAK 25

AHO TSAK

HEMEN GAUDELA OIHUKA DEZAGUN AMEN EGITEARI UZTEKO

EKINTZA KOLEKTIBOA ESKOLAKO PATIOAN, 10:45

AHOTSAK emanaldirako patioa okupatu dugu eta soinuz bete: danborrak, datu dantza, irrintziak eta errezitaldia. Horietako asko isilduak izan dira arreta jarri ez duten ikasleen jolasekin eta mutil batzuek egin dituzten kritika adierazpenekin.

1. batxilerreko ikasleekin ekintzaren balorazioa egin dugu eta hotzetik aztertu egoera: *Ondo prestatu dugu ekintza eta ondo pasatu dugu elkarrekin. Gu han ikusteak deseroso-edo sentitu eta errespetu gabe azaldu direnen ardura da ondo entzun ez izana.*

Aste osoan bizi izandakoak erakutsi du gatazkak egon beti egongo direla, bereziki egoera eraldatzaileetan. Ez dugu dudarik, justiziazkoa da biolentzia oro salatzea, bazterrak utzi eta gure lekua aldarrikatzea.

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

ALBERTO GORRITIBEREAk agur 36 urte herria informatzen jardun ondoren

1984 urtean Debatik Mutrikura ezkonduz geroztik Alberto Gorritiberea Gorriti herriko hamaika saltsatan murgilduta ibili da. Ez da geldik egotekoa izan, eta etorkizunenan ere, hala ibiliko da, ekimen batean ez bada bestean. Baina gure herrian zerbaitek eman badio izena, Diario Vasco egunkariko herriko kartak eman dio. Hasi zenetik, 36 urtetan jardun du herritik eta herrirako informazioa jasotzen eta ematen. Orain, erretiroaren ordua ailegatu zaio. Bere ibilbidearen berri izateko batu gara berarekin.

Nolatan hasi zinen DV-ko herriko kronika idazten?

Mutrikura heldu nintzenetik neure buruari galdetzen nion "*zer eskain diezaioket nik herriari?*" ikusten nuelako herrian jendeak asko egiten zuela herrirako, eta neuk ere nahi nuen neure alea jarri. Halako batean, 1986 urteko azaroan, Natalio Belaustegi Donostiara joan zenean, DV egunkariari hutsunea gertatu zitzaion herriko kronika idazteko eta, irratitik ezagutzen nindutenez, eskaintza egin zidaten. Ez nekien bi hilabeterako izango ote zen, edo bi urterako... eta hogeita hamasei urte eman ditut azkenean! Herri Irratiko lanarekin batera jardun nuen urte luzetan.

Hasiera haietatik hona gauzak majo aldatuko ziren ba!

Gogoan dut hasieratan Olivetti litera batean kalkoarekin idazten nuela gaueko ordu txikiak arte, tiki-taka tiki-taka, eta Iñigo Andonegik aholkatutako makinaz egindako argazkien negatiboak zilarrezko paperean batu eta idatziekin batera Debako gasolindegi zaharrean uzten nituela Donostiara eramateko. Gerora, faxa ailegatu zen, eta erabateko aldaketa izan zen... Eta pentsa mundu digitala iritsi zenean! Korreo elektronikoa, kamera digitalak... Iraultza bizi izan genuen kazetaritza egiteko moduan.

Zein izan duzu kronika horrenbeste urtean idazteko sekretua?

Kalean eta jendearekin etengabe ibiltzea, kazetaritza kalean egitea. Mariano Ferrer, Iñaki Gabilondo edota Txema Urrutia erreferentzia izan ditut, eta horiek ere hala zioten. Kronika ez da norbere luzimendurako espazio bat, jendeari behar duen edo nahi duen informazioa emateko baizik. Beti ulertu dut kronika idaztea herriari zerbitzu bat ematea dela, denetik ematea.

Zailtasuik izango zenuen, ba, ibilaldi luze horretan...

Oreka aurkitzea izan da zailena, eta beti izango da. Bakoitzak bere tokitik irakurtzen du idatzitakoa, eta zaila da denen gogoa asetzea. Txarra izango zen kritikak beti toki batetik iristea, baina denetatik datozenean...

Hizkuntzaren tratamenduarekin, arazorik?

Hasi nintzenetik izan nuen garbi, eta hala agertu nien egunkariko arduradunei, mutrikuarrei euskaraz adierazi behar niela kontatzeko neukana. Euskaraz eta gazteleraz ere bai, baina gure herrian hizkuntzak duen balioa sekula ahaztu gabe. Etorkizunean ere hala izatea espero dut.

Notizia onak eta txarrak ematea tokatuko zitzaizun...

Txarrenak, Kaskasen eta Estanisen heriotzaren ondoren. Biak sentitu nituen oso, eta hurretik bizi izan nituen kazetaritza aldetik ere. Herriko kultur-eragile garrantzitsua izan zen Kaskas, eta Estanis Alkate izanik... Biak ditut barru-barruan.

Eta onenak ere bi: Bata, industrialdea egin zenekoa, herriari ekarri zion etorkizunerako aukera izan zelako. Bestea, babes ofizialeko etxeen zozketa egin zenekoa, herriko hainbat gazterentzat berri oso ona izan zelako.

> *"Beti ulertu dut kronika idaztea herriari zerbitzu bat ematea dela*

Aurki, inuzente eguna izango dugu...

Bai, egun hori ere seinalatu izaten da. Garrantzitsua da umoreari ere eustea, eta irakurleekin halako konplizidade bat bilatzea ere polita da, hori bai, inori kalterik sortu gabe.

Etorkizunerako planik bai?

Beste planik egin aurretik, urte hauetan guztietan batu ditudan testu guztiak eta egin ditudan milaka argazkiak antolatzeko tartea hartuko dut, eta horrekinuste dut pixka baterako dudala.

Eskerrik asko, Alberto, 36 urte hauetan herritarroi gure herriari buruzko kontuak ekartzeagatik. Eta jakin ezazu idazteko arra barrutik kendu ezinik bazabiltza Kalaputxin beti izango duzula tarte bat zuretzat gordeta.



ERAIKUNTZAK OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Uzuri optika audio
ELGOIBAR - DEBA
RPS 183/12
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

NAGUSILAN elkartea

Adinekoak adinekoak zaintzen

Hogeita zazpi urte badira Nagusilan Elkartea sortu zela. Boluntariotza-lana ardatz hartuta, badira hemezortzi urte irabazi asmorik gabeko elkarte hau Mutrikun sortu zela. Sorreran parte hartu zuten Rosarito Rementeriarekin eta Mari Jose Andonegirekin batu gara orduko kontuen eta oraingoen berri izateko.

Orduko hasiera haiek...

(Rosa) Gogoan daukat irratian entzun nuela iragarkia lehenengo aldiz eta arreta eman zidala. Begoña nire ahizpari esan nion ea zergatik ez genuen geuk ere antzeko zeozer egiten Mutrikun. Une berean, Mari Joseri ere esan nion eta ideia ona iruditu zitzaigun.

(Mari Jose) Ni garai haietan katekesian nenbilen eta hirurogei urte betetzean geldialdi bat egin behar nuela pentsatu nuen, beste zerbaitetan hasi, beste ardura batzuei heldu, eta Rosaren proposamena ona iruditu zitzaidan. Lehenengo bilera Anaiarte Biltokian egin genuen, Juan Larreina tarteko. Gure proposamenaren berri eman eta konpromisoa hartu genuen beste herrietako esperientziak jaso eta Donostiako Nagusilan elkartearekin harremanetan hasteko. Ez zen erraza izan honetan abiatzea, baina sei-zortzi lagunekо taldea sortzea lortu genuen.

Emakumeak izan ziren hurbildu zirenak...

Halaxe izan zen. Gizonezko bat aritu da urte luzez (egun ez da etortzen adinean gora doalako) eta beste bat ere bai momentu puntualetan, baina, gaur egun, emakumeak gara denok. Zaintza emakumeon lana dela baieztatzen dugu gurean. Aldiz, beste herrietara joan izan garenean ikusi dugu gizonezkoak ere aritzen direla *Nagusilan*en, baina gurean ez dakit lotsatu egiten diren edo... ez dakigu...

Eta nolakoa izan da zuen bilakaera?

Lehen aipatu bezala, kostatu egin zitzaigun martxan hastea. Borondate ona izatea garrantzitsua da, baina ez da nahikoa. Prestakuntza ere behar da. Ikastaro eta bilera mordoetara joan izan gara ikastera. Pertsona nagusiekin lan egiteko, ideiak garbi izan behar dituzu: Alde batetik, argi izan behar duzu zu ez zoazela inori lana kentzera, honetan dihardutenen lanak eta guk ematen dugun zerbitzuak ez daukatela zer ikusirik. Bestalde, pertsonaren intimitatean ezin zara sartu, ezin da pertsona nagusi bat umea bezala tratatu, eta garbi izan behar da kalitatezko denbora eskaintzea premiazkoa dela. Gure lana gehienbat, ia dena, Mikel Deuna egoitzan burutzen dugu. Bertara joaten gara bertakoekin ordu batzuetan egotera. Herriko ia gehienek egunero izaten dituzte etxekoen bisitak, baina inguruko herrietakoek

> *"Borondatea izatea ez da nahikoa; prestakuntza ere behar da.*

ez dute zorte hori eta gu han izaten gara bakarrik dauden horiei konpainia egiten. Aipatu behar, baita ere, duela urte batzuk *Caritas*ekin ere aritu ginela elkarlanean. Udaleko Gizarte Zerbitzuekin ere badugu harremana, jakin badakite gure premia izanez gero gu prest gaudela edozein herritarri laguntzeko.

Bestalde, Nagusilanek badauka beste zerbitzu bat ere, "*Zilarrezko haria*" deitzen dena. Doako zerbitzua da eta telefono bidez ematen da. Pertsonaren batek nahi badu astean behin edo baten batekin hitz egin, *Nagusilan*etik deitzen

ALEX ELEKTRIZITATEA
Alexander Elezgarai Agirrebengoa
· instalakuntza elektrikoak · domotika · telekomunikazioak
· mantenu eta muntaia elektrikoak · argiztapen diseinuak
638 713 685 • alexmutriku69@gmail.com · Mutriku

BERISTAIN
PAPERDENDA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44



Nagusilan taldeko kideak Mikel Deuna egoitzako egoiliarrekin, 2010 urteko Santo Tomas egunean.

diete eta kontu-kontari aritzen dira denbora luzez. Badira etxetik atera ezin direnak eta horientzat egokia izaten da beste norbaitekin goxo-goxo hitz egitea. Garai batean mutrikuar askok erabiltzen zuten komunikatzeko modu hau.

Astean zeharreko dedikazioa...

Egunero-egunero hiru laguneko talde bat joaten da egoitzara, astelehenetik ostiralera bitartean, pare bat ordu edo

> *"Ematen duguna baino gehiago da trukean jasotzen duguna*

pare bat ordueta erdi... Batez ere arratsaldez joaten gara, goizetan egoitzan bertan ekintzak izaten dituztelako. Eta zein izaten da gure zeregina? Batzuekin hitz egitea, beste batzuekin kartetan jolastea, kantuan ere aritzen gara, herriko kantak-eta... eta hitzik egiten ez dutenak ere hor daudenez, haiei ere konpainia egiten diegu.

Musutruk ematen duzue denbora...

Eta gehiago da trukean jasotzen duguna. Ikusi egin behar da, gero, zein pozik jartzen diren gu hara heltzen garenean. Izugarrizko lorak botatzen dizkigute, barruko zirrara hain handia izaten da... puztuta joaten gara etxera...!

Zuek ere adinean aurrera zoazte...

Halaxe da. Dena den, aurten talde berri polita hurbildu zaigu eta pozik gaude, gazteak gainera, eta nola ez: EMAKUMEAK. Baina Kalaputxiren orri hauek nahiko genituzke erabili jendea gure artera hurbiltzera animatzeko. Astean behin joaten gara egoitzara, pare bat ordu pasatxoko dedikazioarekin. Hilean behin gure arteko bilera egiten dugu, eta urtean zehar lau irtenaldi egiten ditugu. Erreleboa izateak asko poztuko gintuzke, nola ez.

Bestalde, ezin utzi esan gabe, elkarrizketa honetan bi lagun aritu bagara ere, gure elkartearen jardunean taldea dela gure oinarria. Gogoan ditugu hasierako taldekideak, batzuk joan dira gure artetik eta beste batzuk adinean aurrera egin dutelako erretiratu dira.

Amaitzeko...

Eekerrak ematea Iñaki "Atila"ri, Benjamin Perezi eta lagunei, beren musikarekin eta kantuekin alaitzen gaituztelako. Bakardadean egoten diren adinduei eskaintzen dieten bizipoza ordainezina da.

Eta eskerrak, baita, Mikel Deuna Egoitzako langile eta zuzendaritza taldeari ere. Denon artean antolatzen dugun lanak emaitza ezin hobea duela erakusten digute egoitzako egoiliarren aurpegiek.






BOLATOKIXAK, EDONUN (II)

Agiri zaharretan agertzen zakuzen bolatokixen berri eman gendun zemendiko Kalaputxin; bigarren zati hontan, berriz, Mutrikuko baillera ezberdiñetan egon diran bolatokixak ekarriko ditxugu gogora. Bola-jokuan ibillitxako herritxarrek esandakuak ere jasoko ditxugu, erositxako preziuan.

Baserritxarrak nagusi

Edozeiñi galdetuta ere, mutrikuarrek garbi esango dizue: bola-jokua, batez ere, baserritxarren zaletasuna izan da. Sasoi baten baillera gehixenetan egon ziran boletan ibiltzeko tokixak, baiña bolatokirik printzipalena kalekua zan, eleiz atzekua. Herrixan egon arren bolatoki hartan ere baserritxarrak ziran nagusi: jai-egunetan hamaiketako mezia entzun da gero han ibiltzen ziran, batzuk jokuan, bestiak begira, baiña danak gozatzen. Trabesak jokatzen ziran, errielka edo pezetaka: bi baietz, hiru ezetz! Edozela bueltau zeikezen etxera, poltsikuak hutsik edo beteta.



Baiña kalian bolari abillak ere egon izan dira. Oraindik ere mutrikuar askoren akorduan dozen bi izen aitxatuko ditxugu: Pedro Alberdi Amezua "Bizkai" (1894-1974) eta Erramon Mendizabal Ozkorta "Txokolo" (1920-2012). Abadiñon jaixotakua zan Pedro, hortik ezizena. Eleiz atzeko bolatokiko azken urtietako arduraduna izan zan.

Hiru txirlo

Juan zan hillabetian kaleko bolatokixen berri eman gendun, eta gaur Mutrikun egon zian gaiñerakuak ekarriko ditxugu hona. Baiña horren aurretik, labur-labur azalduko degu zelakua zan Mutrikuko bola-jokua. Izan ere Euskal Herrixan ez da egon bola-joko bakarra, hogeitxik gora izan dira bola-joko klasiak!!

Gure herrixan klase edo aldaera bakarra jokatu izan da: *hiru txirlokua*. Batzuek *kanaleko hiru txirlo* izena ematen dixue. Bola-joko modalidade hau Bizkai lestian, Gipuzkoako mendebaldian eta Aramaixon jokatu izan da.

20 bat zentimetroko hiru txirlo jartzen ziran, illaran, txirluen artian metrobeteko tartia lagata. Bolatokixak 25 bat metroko luzerua eukitzen zoan, lurra zapal-zapal eginda zakan behian eta botaldixa egitxen zan tokitxik hurre ohol bat egoten zan lurrian. Ohol haura jo edo ikutu egin bihar izaten zoan boliak, botaldixa balekua izateko. Jo ezian "*ohol-huts*" izaten zan eta txirloren bat botata ere ez zan punturik zenbatzen. Ohol hortatik txirluak zozen tokiraiño 30 bat zentimetro zabaleko kanala egoten zan. Haren gaiñetik juan bihar zoan boliak, eta, jakiña, jausi ezkero kale! Txirlorik gehixen botatzen zoan bolarixak irabazten zoan.

Mutrikun, bailleratik baillerara jokuak aldaeratxuak zakazen: bolari bakoitzak bi edo hiru botaldi eukitzen zitxuan, bolak ere ez ziran berdin-berdiñak, bolatokixak ere ez...

San Jeolimoko bolatokixa

Mijotarrek nekez ahaztuko deue San Jeolimoko plazan euki zeuen bolatokixa. Batzuek trabesak jokatzen zitxuen, *bi bota baietz, hirurak baietz!* Baiña normalian ez zan dirurik jokatzen; auzoko jaixetan, baiña, bola-jokua antolatzen zan eta sarixak, *premixuak*, egoten ziran. Lehelenguarentzako konejo paria, konparazio baterako. San Jeolimon jokalari bakoitzak hiru botaldi egitxen zitxuan.

Sanjeolimotan, urtero-urtero hutsik egin gabe, ondarrutarrak eta gorozikarrak inguratzen ziran. Gorozikarrek boletarako zaletasun haundixa zakaen.

1983ko ujalek pixkat bat hondatu zeuen Mijoko bolatoki haura, eta harrezkero ez zan erabilli. Azkenerako kendu egin zeuen.





Gorozikarrek esan zeuen bola-jokorik ez bazauan ez zirala berriro juango sanjeolimotan, eta halaxe izan zan, bolatoki haura kendu zeuenetik ez dira berriz etorri.

Artzaiñerrekako "Bola-lecua"

Mutrikuar gitxik jakingo deue Artzaiñerrekan ere egon zala bolatokixa. Baiña aspaldiko kontua da hori. 1916. urtian Atxukarro baserriko Pedro Esnaolak lursail bat erregistrartu zoan, eta honela deskribatu zoan: "*terreno heredad labradío llamado Bola-lecua cuyo terreno viene gozando de los antepasados, y se halla en el barrio de Arzain-erreca*". Ordurako solua zan, itxura danez. 1951. urtian ere pertsona beraren izenian agertzen zaku, eta seiñalatzen da 743 metro kuadroko solua zala eta erreka aldamenian zauala.

Gaur egun, berriz ere, Goixakua baserriko sailla da eta bertakuek *Bolatokixa* esaten dixue terrenuari. Sasoi baten, Goixakua etxeko terrenua ei zan hori, eta, lehengo zaharrek esanda dakigu, "*bi ardigaitxik Atxukarrokuei eman zixuela bertan bolatokixa ipintzeko*".

Larangamendiko bolatokixa

Larangan ere egon zan bolatokixa. Saillari *Langabar* esaten dixue bertakuek, zati bat San Juan baserriko lurretan zauan eta beste bat Arategi baserrikuetan. Probarrixa ere egon ei zan bertan.

Olazko bolatokixak

Gaur egun Olatzen ez dago bolatokirik, baiña sasoi baten bi behintzat egon ziran. Lehelengua eskolaetxiaren aurrian egon zan. Inguruan umiak ibiltzen zirala-eta beste toki baten jartzia pentsau zeuen; bigarrena, berriz, Kurutze aldian jarri zeuen, Kobalden, Aritzaga-Etxeberriko sailletan. Bigarren bolatoki haura ez zan denbora askuan erabili, izan ere soziedadia eta tabernia aparte geratzen ziran...

Jakin degunez olaztarrak amorrauta ibiltzen ziran boletan. Eskolaetxian tabernia jarri aurretik kuarto batzuk libre zozen eta bertan gordetzen zitxuen txirluak eta bolak. Auzokuak ibiltzen ziran bola-jokuan, mezetatik ertendakuan eta jai arratsaldian.

Kuadrillia batzen zan, 15-20 lagun, illeran jarritxa eta bakoitzak pezeta bat edo bi jartzen zoan. Olaztarren usadixua zan bolari bakoitzak hiru botaldi egitxia. Han ibiltzen ziran zeiñek txirlo gehixen bota; enpatia edo berdinketa egon ezkero euren artian jokatzen zeuen. Ibiri baillerako batzuk ere hurreratzen ziran jai arratsaldetan.

Boletan zabiltzenian, tartian beti egoten zan mutil koskorren bat, botaldi bakoitzian atzera botatzen zoana bolia eta txirluak tente jarri... Irabazten zoan jokalarixak zeozer pagatzen zion mutil hari, pezetia-edo.

Esan degun bezela bolatoki batetik bestera aldia zauan, batzuek azkenengo bost metruan bihurrixa eukitzen zeuen. Eta Olatzen esan diguenez hori konpentsatzeko bolari *bihorritxasun* bat eman bihar zakon, efektu bat; osterantzian, zuzen-zuzen bota ezkero goiko kanal edo munatxotik behera amiltzen zan.

Jokalari batzuek *hankageldixan* botatzen zeuen, beste batzuek, berriz, atzeratxeago jun eta hiru-lau pauso egin eta *rra!* jaurtitzen zeuen bolia.

Galduamendiko bolatokixa

Pasatu dira urtetxuak, baiña Mautzi edo Matsuri baserrixan, etxe aurrian ere egon zan bolatokixa. Galduakuak, Mautzikuak eta Leizarrenguak ibiltzen ziran bertan boletan. Denbora-pasatzat zaken eta ez zeuen dirurik jokatzen.

Bernabeneko bolatokixa

Mautzin bezela, Bernabeneko etxian ere bolatokia egon zan. Bernabenekuek esanda dakitx etxeko gizonezkuak ibiltzen zirala boletan, baserritxarrekin batez ere. Ur-depositxuaren aldamenian egon zan bolatoki haura.

Galbaixoko bolatokixa

Hauxe da Mutrikun geratzen dan bolatoki bakarra. Galbaixuetan baiño ez da erabiltzen. Jaixak baiño egun batzuk lehenago, Arrate bueltan, garbitxu eta prestatzen da bolatokixa.

Sasoi baten, Galbaixo egunian eta hurrengo domekan "premixuak" egoten ziran. Bolari bakoitzak bi botaldi egitxen zitxuan Galbaixon, eta hortarako bi bola zozen, bat haunditxuagua eta bestia txikitxuagua.

Parte hartziarren diru jakin bat jartzen zeuen bolarixek. Sari desberdinak egon zeinkezen: jarritxako dirurarен portzentajeren bat, botilla bat txakoliñ, kopatxoren bat...

Premixuetatik aparteko ekiñaldixak ere egitxen zitxuen kuadrillek; 10, 15 edo 20 lagun batzen ziran eta bakoitzak pezeta bat edo bost pezeta jartzen zoan "tiradia" egitxiarren. Horrezaz gaiñera, bola bakoitzian jokua egon zeiken: *batek bi baietz, bestiak bat ezetz...*

Galbaixo ingurukuak erne ibiltzen ziran eta kanpoko jokalari onak etortzen ziranian gitxitxan parte hartzen zeuen, bazakixen-eta diru haura galdu egingo zeuena.

Galbaixoko eleiz aldameneko kantinan gordetzen ziran txirluak eta bolak.

Galbaixon gaur egun bolek ez daukate batere zulorik, "esku-azpikuak" esaten dixue. Baiña sasoi baten bi zulo eukitzen zitxuen, baten atzamar lodixa sartzen zan eta bestian gaiñerako atzamarrak, "esku zulokuak" esaten zixuen.

Bai bolak, bai txirluak egitxeko materixal gogorra erabiltzen zan: arte egurra.

Esan bezela, hemengo eta hango bolatokixak ez ziran berdiñak; batzuek nahi izaten zeuen bolatokixak kanala pixka bat kurba antzekua eukitzia. Hori konpentsatzeko, eta kontuan hartuta bola batzuk biribil-biribillak ziran arren beste batzuk luzexkarak zirala, bolari abillek *azpijana* edo *burpilla* ematen zixuen boliari, efektua.

Hamar urtian Galbaixoko bolatokixa erabilli gabe egon eta gero 2019. urtian txukundu eta martxan jarri zeuen berriz ere. Aurten ere boletan ibilli dira galbaixotan, eta iraillaren 18xan (Galbaixotarren eguna) II. Bolo Txapelketa jokatu zan bertan. Egun horrek pasautakuan bolatokixa tapatu eta datorren urteko galbaixuak aillegatu arte, geldi, lo, egongo da. 2023an bolari zaharrak eta gaztiak hartzeko prest. Eta, jakiña, gizonezkuekin batera baitxa andrazkuak ere! Izan ere, urtetik urtera gero eta gehixago dira bolatokira hurreratzen diran andrazko bolarixak.

Josu Larrañaga Arrieta

Gotzon arrandegia
produktu fresko eta kalitatezkoak
Gotzon Eizagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoak: 943 60 46 02 / 943 60 36 59

OKINDEGIA POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

GABONAK eta OPARIAK

Gabonak ate joka ditugu, eta Gabonekin batera Olentzerori eta Mari Domingiri eskatu beharreko opariak; erosketak egiteko garaia gain-gainean dugu. Baina, askotan ez al dira gehiegi eta gehiegizkoak?

Garai hauetan familia askorentzat buruhauste galanta bihurtzen da opariak erostea eta egokiena zer den asmatzea. Zer erostea komeni? Gustura jolastuko duten zerbait? Ala hezigarria dena? Eta zergaitik ez birziklatutako zerbait? Erostea edo ez erostearen hautua ere gure esku dago. Jolasak birziklatzea edota partekatzea ere aukera bat da. Egia da azken hilabeteetan telebista zein katalogoetan ehunka jostailu eta joko ikusi dituztela etxeko txikienek. Eta berehala ilusioz idazten dituzte zakura sartuko dituzten gutunak. Hori horrela, gabonetako opariekin arduratsu jokatzeko asmoz, hainbat aholku eta kontutan hartu beharrekoak aipatu nahi dizkizuegu atal honetan. Baina horretan jakitunak ez garenez, adituengana jo dugu.

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa (EKA)
https://www.eka.org/eu/90-earteko-aldeak-jostailu-berean-alderdiak-eta-zerbitzuak-konparatu-eta-baloratu/
Olgetan www.olgeta.eus
Ikasbil www.ikasbil.eus/eu/ikasbil

Erosi behar izanez gero, zeri begiratu?

Ohikoena adinari erreparatzea da, eta adituek ere hala diote. Alegia, adina kontutan hartu behar dugu, umearen gaitasun maila horren araberakoa baita. Ordea, zein da adin tarte bakoitzerako egokiena? Dena dela, lehenik eta behin, etxean duguna begiratzea komenigarria da. Eta halaber, haurrek zer erabiltzen duten eta zer ez identifikatzea. Horretaz aparte, jostailuak aurrez ikustea ere garrantzitsua da; askotan publizitateak modu batera saltzen dituzte eta errealitatea oso bestelako izan daiteke. Opari asko egitea ere ez da batere komenigarria, opariak jasotzean momentuko gorakada izaten baitute, baina ondoren armairuan gorde eta ahaztuta gelditzen dira. Kontutan hartu beharreko da ere, jostailu zein jokoek, adin tarte edo funtzio ezberdinak dituztela. Beraz, aurtengo opariak erosi aurretik, ondo pentsatzea komeni da.

Opariak erosteko EKAren aholkuak

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak (EKA) Gabonetan gurasoek opariak erosi edo aukeratzeko garaian kontuan izan beharko lituzketen hainbat ezaugarri jakinarazi ditu:

- Erosketen programaketa: aurten, inoiz baino gehiago; izan ere, horrela, aglomerazioak eta azken orduko presak saihestuko ditugu, eta bilatutako artikulua agortu ahal izango dugu.
- Hainbat dendatako prezioak alderatu: kasu batzuetan, jostailuak osagarriren batekin etor daitezke (prezioa garestitu dezaketenak) edo prezio baxueneko jostailuaren gainean deskonturen bat izan dezakete bi jostailu edo gehiago erostean, deskontu bereziak, kopuru jakin batetik gorako erosketengatiko opari gehigarriak… Horren harira, nabarmentzekoa da merkataritzak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk baloratzea (orientazio pedagogikoko gunea, jokoen erreserba, etxera bidaltzea...).
- Erosleen %40 inguruk positiboki baloratzen du dendaren aholkularitza pertsonala jostailu bat erosteko orduan, oso lagungarria dela iritzita.
- Prezioei dagokienez, ohartu gara webguneetan gora eta behera egin dutela egunotan. Berriz ere, alderatu eta argi izan zein erosi nahi duzun.
- Erositakoa aldatzeko eta itzultzeko aukerari buruzko informazioa eskuratzea, baita horretarako ezarritako epeei buruzkoa ere (kontuan hartuta establezimendu batzuek produktua epe jakin batean itzultzea edo aldatzea baino ez dutela onartzen).
- Umearen adinera eta eboluzio-unera egokitutako jostailuak bilatzea, sormena eta irudimena sustatzen dutenak, ikusle hutsak izan gabe, haien gustu eta lehentasunak aintzat hartuta betiere.
- Gero eta jostailu gehiago daude (mahai-jokoak, panpinak, pelutxeak…) jolasaren esperientzia hobetzeko aplikazio mugikorren bat deskargatzea beharrezko edo komenigarri dutenak. Interesgarria da aukera horri buruzko informazioa eskuratzea eta gure gailua (mugikorra edo tableta) aplikazio horrekin bateragarria dela egiaztatzea, eta, gainera, hain gazte izanda, panpina edo mahai-joko batekin jolasteko gailu digital edo mugikor bat behar duten aztertzea.
- Etiketak berrikusi: jostailuak gaztelaniazko etiketa osoa izan behar du (gutxienez), eta honako hauek jaso behar ditu: markaturik egon behar du toki ikusgarri eta irakurgarri batean (jostailuaren fabrikatzailearen konpromisoa, baita EBko segurtasun-arau guztiak betetzen dituela ziurtztze aldera), fabrikatzaile, inportatzaile edo banatzailearen identifikazio-datuak Europar Batasunaren barruan, dagozkion jarraibideak eta oharrak (gomendatutako erabilera-adina), eta jostailu kimikoen gehieneko erabilera edo helduen gainbegiratzea jostailuen erabilera eta segurtasunari dagokionean. Ez erosi 3 urtetik beherakoentzako pieza txiki desmuntagarriak dituzten jostailuak "*ez da komenigarria 36 hilabetetik beherakoentzat*" sinbolo eta legendarekin identifikatuak.
- Beti eskatu behar da tiketa edo faktura, eta HURA GORDE, aldaketa, itzulketa edo erreklamazioa egiteko. Internet bidez erostean, konfidantza eta fidagarritasuna eskaintzen diguten online dendetara jo behar dugu. Denda horietan, establezimenduaren identifikazio-datuak, harremanetarako moduak eta erosteko baldintzak agertu behar dira, eta arreta berezia jarri behar da balizko bidalketa-gastuetan (prezioak nabarmen areagotu ditzakete), entrega-modu eta -epeetan

eta ordainbideetan, bai eta aldaketak eta itzulketak egiteko aukera eta epeetan ere. Gogoan izan behar da horrelako erosketetan atzera egiteko eskubidea dugula. Horrekin, 14 egun ditugu produktua itzultzeko, zenbait artikulutan izan ezik, higiene-arrazoi edo pertsonalizatuta egoteagatik, besteak beste.

OLGETA: Aholkularitza baino gehiago

Besteak beste, haurren gustuak, adina eta heziketa maila kontuan hartu behar ditugu jostailuak aukeratzerakoan. Jolas horiek bultzatzen dituzten baloreak ere bai. Eta horretarako, aurrean aipatu den bezala jolasaren inguruko aholkularitza jasotzea garrantzitsua izango litzateke. Horra bada, jostailuak saldu eta mahai jolasak mailegutzan eskaintzeaz gain, jostailu, jolas eta jolaserako espazioen inguruko aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen Olgeta. Olgetaren helburua, pertsona bakoitzarentzat jolaserako baliabide egokiena eskaintzea da. Eta, aholku hauek luzatu dizkigute:

- Hobe da jostailu gutxi oparitzea; gutxi baina kalitatezkoak.
- Kontuan hartu jostailua jasoko duen pertsonaren adina, gustuak, gaitasunak eta testuingurua (anai-arrebarik ote duen, gurasoekin jolasteko ohitura duen, asteburuak kanpoan pasatzen ote dituen...).
- Jostailuak haurraren berezko sormen, irudimen eta fantasia gaitasunak esna mantentzeko eta hauek garatzeko modukoa izan behar du. Hau da, haurraren jolasa izan behar da protagonista, eta ez jostailua.
- Kalitatezkoa izan dadila, bai material aldetik bai sorrarazi dezakeen jolasaren aldetik.
- Ongi egina eta estetikoki polita bada, askoz hobe.
- Ingurugiroarekiko jasangarria eta etikoki zuzena (genero, kultura eta abarren aldetik).

Irizpide hauek orokorrak izanik, badago gailentzen den beste irizpide bat: jostailurik onenak pertsonak garela. Haurrek jolaserako espazio, denbora eta kideak behar dituzte. Berdin du haurrak diren edo helduak, baina horixe da batez ere haurrak behar duena.

Horrez gain, orain arte eta, talamez, oraindik ere generoak oso ezberdinduta ikus ditzakegu katalogoetan. Gauzak horrela, ekoizpen berriko iragarkietarako, Kontsumo Ministerioak, Espainiako Jostailu Fabrikatzaileen Elkarteak (AEFJ) eta Autokontrolak abenduaren 1ean indarrean jarri zuten jostailuen publizitate ez sexistari buruzko kode deontologikoa, apirilean sinatutakoa. Aurrera pausoak ematen ari garen arren, oraindik kontuan izan behar dugu jolas sexistak asko direla.

Zeintzuk dira jolas sexistak eta zeintzuk ez?

Beste hainbat tokitan ere aurki daitezke, baina www.ikasbil.eus orrialdera jota jolas eta jostailu ez sexisten gida aurki dezakegu. Bertan hainbat aholku irakur dezakegu. Horien artean, hemen batzuk:

Jolas eta jostailu sexistak dira:

- Neskak edo mutilak jolasteko aukera ematen ez dutenak.
- Gizona edo emakumea izaten "irakasten" dutenak.
- Genero desberdintasunak markatzen dituztenak.
- Heldu eta haurren arteko harremana, modu itxian, generoen araberako jolasetan bideratzen dituztenak.
- Harremanak sexuaren arabera markatzen dituztenak.
- Egungo genero zatiketa birproduzitzen dutenak.

Jolas eta jostailu ez sexistak

- Sexu gainetik jolastu ahal izateko aukera ematen dutenak.
- Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen ez dituztenak (ez indartzeko). Pertsona moduan, gaitasun anitzak bultzatuz, osotasunean garatzeko laguntzen dutenak.
- Genero estereotipoei erantzuten ez dietenak. Generoak garatzen dituen gaitasunak baino askoz gehiago lantzeko aukera ematen dutenak.
- Eredu zabal eta ez itxietan jolasteko aukera ematen dutenak.
- Generoari dagozkion bestelako baloreak bultzatzen dituztenak (balore positiboak).
- Bizitzarako eredu berri bat, parekidetasunean oinarrituta, bultzatzen dutenak.

Bada, hemen dituzue aholku batzuk. Aipatu bezala, jolasek, jostailuek eta ipuinek garrantzi handia dute umeen baloreen transmisioan, beraz, gai honi arduraz heldu. Alabaina, gauza guztien gainetik, gozatu Gabonak!







Urteak aurrera doazen arren
gure herriak mila etsai
gu ondoezik porrot batean
bitartean haiek alai
kartzeletako duintasuna
ta urkoaren berotasuna
bere etxekoaren zai
Mansilla, Topas edo Duesotik
hegaka ehundaka elai
lo dagoen herria esnatzeko
ea izaten garen gai
kanpokoon oihua: amnistia!
askatasunaren irrintzia
barrukoena ere bai
Borrokak aurrera darrai!

































Lexuri Gallastegi Sodupe
C.P. DONOSTIA, Martutene Paseo de Martutene, 1
20014 Donostia (Gipuzkoa)

Irantzu Gallastegi Sodupe
C.P. MADRID VII, Estremera Ctra. M-241, Km. 5,750
28595 Estremera (Madrid)

Orkatz Gallastegi Sodupe
C.P. TOPAS, Salamanca Ctra. N-630, Km. 313
37799 Topas (Salamanca)

Gabonetan PRESO eta IHESLARIAK ETXERA !

Etxerat

SARE

HIRUGARREN GRADUTIK BIGARREN GRADURA BERRIRO. NOLA DA POSIBLE?

Azkenaldian ikusten ari garen moduan, Auzitegi Nazionaleko fiskaltzaren errekurtsoak, bilatzen dituzten helburuak lortzen ari dira. Hirugarren gradua atzera bota eta bigarren gradua ezartzen diote berriro presoari, hainbeste urtetan ondo ezagutu duen kartzelara itzularaziz. Beste behin ere, horretarako ardura eta beharrezko informazioa duten Espetxe Tratamenduetako Batzordeen erabakiaren aurka egiten ari da Audientzia Nazionala, presoek garatu beharreko espetxe ibilbidea eta etxerako bidea oztopatuz.

Xabier Atristain, Mikel San Argimiro, Aitor Esnaola eta Joseba Arregi izan dira azken hilabetean egoera hau jasan dutenak, baina guztira 9 presok jasan dute atzerapauso hau, nahiz eta, gaur egun 6ri eragiten dieten, besteek zigorra guztiz beteta baitute. Preso hauek 3.graduan egon diren bitartean, ez da inolako arazorik egon, legeak dioen bideari jarraiki birgizarteratze fasean aurrera egin dutelako, eskatzen diren baldintza guztiak beteta.

Tamalez, badakigu, kasu hauek ez direla kasu isolatuak eta atzetik beste dozena bat presori ere eragingo diotela, jada, errekurtsoak jarrita baitaude. Guk garbi daukagu, gertakari hauek onartezinak direla eta lanean jarri behar dugula, bai kalean eta baita instituzioetan ere, egoera hau geldiarazteko. Honen aurrean, udaletxe askotan deklarazio ezberdinak lortu dira EAJ, EHBILDU eta Podemos-Ahal Dugu-ren babesarekin, bide batez, egoeraren kezka argi utziz eta horrelako jokaerak atzean uzteko eskatuz.

Espetxe politikaren baitan aldaketak eman eta urruntze politikarekin amai-tzeko urratsak ematen ari garen honetan, Fiskaltzak, Audientzia Nazionalaren laguntzaz, legedia arruntaren ezarpenaren aurrean eta etxeratze prozesuaren aurrean oztopoak jartzen jarraitzen du, elkarbizitza zangotrabatuz.

Fiskaltzaren eta Audientzia Nazionalaren jarrera irmoki salatu nahi dugu. Baita, Xabier, Mikel, Aitor eta Josebak etxean behar luketela argi adierazi ere. Legeak ezarritako bideari oztopoak jartzeko jarrera hau, iraganeko egoerara itzultzeko nahiarekin baino ezin dugu lotu, halakorik ezin baita bestelakoan ulertu. Izugarria da 2022. urtean oraindik mendekuan eta gorrotoan oinarritutako jarrerekin jarraitzea.

Baina guk argi dugu elkarbizitza eraiki nahi dugula, eta hori guztion artean egin behar dugu. Horrelako gertakarien aurrean, salbuespenezko espetxe politika behin betikoz amaitzea nahi dugunok elkarlanean aritu behar dugu, hori delako erantzunik eraginkorrena. Ezin ditugu atzerapauso hauek onartu eta horretan lanean jarraituko dugu, etxean izateko baldintza guztiak betetzen dituztelako .

Gabon buelta honetan, Mutrikun eta Euskal Herrian, izango dugu aukerarik kalean ozen aldarrikatzeko. Ondoan aipatuko ditugun ekintzetara gonbidatu nahi zaituztegu, beraz. Etxeetako aulki hutsak behingoz bete daitezen.

ABE 17

Goiko plazan, 13:00etan

Santo Tomas eguna

ELKARRETARATZEA

ABE 21, 22, 23

ZUBIXAn

EUSKAL PRESOEI ELKARTASUN POSTALAK

ABE 24

Zubixan hasita, 18:30etan

OLENTZEROREKIN KANTUJIRA

ABE 26

Beheko plazan, 19:00etan

AZKEN OSTIRALA

ABE 31

Goiko plazan, 11:00-14:30

MARISKADA

Izena eman Zubixan

MARTUTENEKO ESPETXERA

Goiko plazatik, 19:00etan

GIZA KATEA + Brindisa


URT 7

ETXERA BIDEA GERTU


DENOK BILBORA

Izena eman Zubixan

ZORIONAGURRAK



INDALEKI
Zorionak atxa, segi gure bizitzak alaitzen denbora askotan. Matxe--matxe.



XABI
Zorionak eta disfrutatu urtebetetze eguna familia eta lagunekin! Muxu handi bat danon partez!



MADDI
Zorionak Maddi 5 urte haundi bete ditxuzulako! Matxo haundi bat danon partez!!!



ANARTZ
Zorionak Anartz! 6 urtetxo dagoeneko. Mila musu zuretzat, maite zaitugu.



IBAI
Zorionak abenduaren 3an 35 urte bete duzulako. Mila zorion danon partez, bereziki Enaitz, Eber, Aner, Adei, Danel eta Naianek. Aupa txapeldun!



JARE
Zorionak Jare!!! 5 urte haundi etxeko sorginak! Segi geure bizitzak alaitzen eta zeu zeana izaten!



ENETZ
Zorionak Enetz! Muxu haundi bat aitxona Joxe Angel, amona Itziar eta izeko Haizean partez. Maitxe zaitxugu!!!



ENETZ
Zorionak Enetz!!! Etxeko mutil handixak 6 urte handi! Ondo-ondo ospatu, ixiko Amaia, osaba justo, atxona ta auman partez muso asko asko!



MALEN
Dantzari eta kantari, zorion on onak zuri, Malen!! Muxu haundi bat Nora, Lea eta Uman partez!



OIER
Zorionak gure etxeko txikixai irribarrez beteriko 2 urte betetzean! Muxu handi bat bereziki Markel, Maialen eta Kimetzen partez



IERA
Zorionak txirripristin!!
3 urte dauaneko, segi gure bizitzak alaitzen.
Asko matxe zaitxugu!



NEREA
Arnoko barrunbeetatik ertetzen dezun baten, afalondoko trago bat zure kontu! Zorionak!!

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

Argazki Zaharrak



Fondaberriko bikotea baratzan, 1940 urte inguruan.
Praixko Pagoaga Alkorta (1867an jaioa) eta
Kattalin Plaza Pagoaga (1869an jaioa).

Fondaberriko familia,1922 urte inguruan
Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera:
Jesus Pagoaga Plaza, Agustina Pagoaga Plaza,
Maria Pagoaga Plaza, Jose Pagoaga Plaza.
Beheko lerroan, ezkerretik eskuinera:
Simon Pagoaga Plaza, Kattalin Plaza Pagoaga,
Praixko Pagoaga Alkorta, Jeronimo Pagoaga Plaza.



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

FARMAZIA GUARDIAK 2022 - 2023

2022	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Abendua	1	2	(2)	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	(1)	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	(2)
2023	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Urtarrila	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	(1)	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	(2)	2	3	3

(2) (1) Larunbat goizak (09:30 -13:00)

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00

1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	(1) Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	(2) Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26

GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00

2022	Mendinueta Berastegui	Eibar	Urkizu pasealekua 6	943 82 01 06
2023	Cristina Sanchez Castaño	Eibar	Julian Etxeberria kalea 7	943 20 30 52

abenduak 23, barixakua
Abendurock: Habi+Etxekalte
Gaztetxean, 22:30etan

abenduak 24, zapatua
OLENTZERO herriko kaleetan zehar

abenduak 30, barixakua
Bandaren Gabon kontzertua
Zabielen, 20:00etan

Abendurock: Iluma+Pleura
Gaztetxean, 22:30etan

abenduak 24, zapatua
OLENTZERO herriko kaleetan zehar

urtarrilak 1, igandea
Urte berri eguneko Arnora igoera, goizean goiz

urtarrilak 5, eguena
ORIENTEKO ERREGE MAGOAK herriko kaleetan zehar

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
urtarrileko aldizkarian
argitaratzeko
urtarrilaren 13rako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA

2023 urtean ere ohiturazko saioak izango dira
hurrengoa:
otsailak 17
17:00etatik 20:30ak arte, anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI IRTEERAK

urtarrilak 15
Biriatu-Txoldoka-Manttale-Biriatu
otsailak 12
Sagardotegia
martxoak 19
Jaunsarats-IREBER-Beruete
apirilak 2
Lizarrusti gaina-GANBO- Amezketa
maiatzak 7
Angulo gaina-Orduña gaina (Uren banalerroa)
ekainak 16, 17, 18
Palentziako mendiak
uztailak 9
Orduña gaina-Altube gaina (Uren banalerroa)
irailak 10
Ezkabako ihesa 2. Etapa (Olabe-Saigots)
urriak 22
Ordunte-Zalama
azaroak 5
Etxaguen-OKETA-Ubidea
abenduak 3
Ondarru

Burumendi Mendi Elkartea

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
gureari osasuna.

Eguberri zoriontsu eta Urte Berri on!



udal euskaltegiak • udal euskaltegiak

DEBABE
Udal Euskaltegia
LUARDO ETXEA
Sabanika aldapa 4 - Mutriku
943 60 30 94 · udaleuskaltegia.mutriku@debabe.eus

- **Etxea apaintzeko proiektuak**
- **Altzariak**
- **Sukaldeak**
- **Leiho mistoak** (egurra eta aluminioa)

AB AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

YURRITA PRODUKTUEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA

Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea,
eta bestelako gourmet produktuak.



Gabonetarako opari kaxak eta eskaintza bereziak!

Zuzeneko salmentaren ohiko ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera → 10:00-14:00.
Larunbatak → 10:00-13:00.

Zuzeneko salmentaren gabonetako ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera → 10:00-18:00.
Abenduraren 24a eta 31a → 10:00-13:00.

Online salmenta:
www.yurritagastronomika.com

CONSERVAS YURRITA 1867 GASTRONOMIKA

CASA MAULEON ETXEA
Desde 1867 tik